

Olarizuko txosna, 2007ko irailaren 10ean

Olarizuko eguna berezia izanik, berriro ere hala kirol arloan, nola gizarte arloan denboraldi emankor baten hasiera izatea espero dugu. Azken bi urteak ezin kaskarragoak izan ostean, hirugarrenean zorte ona izan nahi genuke, alegia, mesede itzela izango litzateke aurten ateri egotea, baina gure hiriko eguraldia nolakoa den kontuan hartuta, ezin ezer ere aurreikusi... Hortaz, lehengo bi urtetan arrakasta handiagoa izaten ahaleginduko gara.

Laguntza emateko ezinbestekoa da aurrez izena ematea, aurtengo egitasmoa bideragarria den jakin dezagun; izan ere, eguraldia edota kideen parte-hartzea direla eta ganoraz aritzerik egongo ez balitz, bertan behera utziko genuke proiektua, eta aurre-laguntzaileei horren berri emango litzaike. **Behar-beharrezkoa da IRAILAREN 5a baino lehen jakinaraztea**. Olarizu egunaren aurreko asteazkenean bilera egingo dugu, eta bertan eguraldiari buruzko lehen datuak jakin ez ezik, hasierako lan plangintza taxutuko dugu.

Urtero bezalaxe, honako hauek dira laguntza emateko ordutegiak:

Hilak 8, larunbata	Goizez	Materialak zamatzea	10:00etatik 12:00etara
Irailak 9, igandea	Arratsaldez	Txosna instalatzea	16:00etatik 20:00etara
Hilak 10, astelehena	Arratsaldez	Barra eta desmuntatzea	14:00etatik 22:00etara.

Laguntzen duten GUZTIEK oparixoren bat jasoko dute; garrantzitsuena, ordea, biltzen dugun diruak penyaren lana aurrera eramaten laguntzea da.

Dena dela, LAGUNTZARIK ONENA Txosnara osteratxoa egitea eta zuen adiskide eta senideei gomendatzea izango da. Mila eske aldeztu aurretik; ea eguraldia ere lagun dugun.

Aldizkaria posta elektronikoko bidez

Oraindik ere bada posta elektronikoa edukita aldizkariak eta informazioa paperean jasotzen dituen bazkiderik; horrek paper gastuak eta bestelakoak dakartza batetik, baina horrez gain jakinarazpenak idazten direnetik helbideetara heldu arte gutxienez hiru egun pasatzen dira. Horregatik, paperezko bertsioa jaso eta aurrerantzean eroso posta elektronikoz hartu nahi duenak bidal dezala Email bat helbide honetara:

penya@euskobarca.com

Dena askoz arinago jakingo duzu eta naturak eta penyak eskertu egingo dizu...

BI HILEKO INFORMAZIO ALDIZKARIA *85. zenb.* 2007ko ekaina-uztaila-abuztua
PENYA EUSKOBARÇAren informazio aldizkaria



P.B. VITORIA-GASTEIZ EUSKOBARÇA
Uruguai k., 7-9 behea Tel./Faxa: 945-242562
WEB gunea: www.euskobarca.com E-mail-a: penya@euskobarca.com

Gaizki hasitakoa gaizki bukatzen da, beraz,
Aurten ondo hasi beharra dago hasieratik

Eta horretan ari garela ematen du. Lehenik eta behin 2006-07 denboraldiko Errege Kopa oparitu (finalera heldu ez ginelako) eta geroago ligan azken 3 jardunaldietan bukaerako minutuetan 4 puntu galdu ostean, hasteko daukagun denboraldi berri honetan zentzuz jokatu behar dugu. Izan ere, Parisen zerua ukitu ondoren, zail-zaila zen lurrera itzultzea, baina 12 hilabete pasatxoan jokalaria berberak txapeladun ametsetik esnarazi gaituzte.

Dena den, joan den urtean Henry etorri ez bazen, aurten gurekin daukagu laukote beldurgarriko kide. Europa osoan inbidiaz begiratzen digute gure aurrelarien izen handiak direla eta; orain kalitatea frogatzea baino ez da falta, baina ziur aski ez zaigu lehengo astekoa gertatuko, Eto' o eta Messiren lesioek umezurtz utzi baitzuten taldea.

Zorionez, opor egun batzuk gelditzen zaizkigu oraindik ere, indarberritzeko eta denboraldi berriari hobeto heltzeko; berehala iraila etorriko da eta ohartu gabe liga abian izango dugu...

Eta guri ere Olarizu datorkigu berehala, hasiera-hasieratik erne egon gaitezen. Ea era batean edo bestean guztion laguntza jasotzen dugun, 2007/2008 denboraldiari ondo ekiteko.

P.B. Euskobarça

Lluís Carrerasen aldeko ekitaldia 2007ko maiatzaren 9a

Carreras auzia puri-purian dagoela, hainbat ahaleginen ostean, Lluís Carreras eta Tito Bonano F. C. Barcelonako jokalaria ohiak gure penyaren egoitzan izateko aukera eduki genuen; biak ala biak Alaveseko jokariak izan dira oraintsu arte. Ekitaldian Can Barçako taldearen kontuez eta hitz egin eta batez ere Masia barrutik azaldu ziguten.



Lluís Carrerases eman zigun hitzaldiaren amaieran jateko pintxoak aukeran atera eta oroigarri batzuk banatu ziren. Nabarmenezkoa da bai ikus-entzunezko hedabideek (telebista eta irratia) eta bai bertoko eta kirol prentsak ekitaldi honetaz egin zuten jarraipen sakona.

Ikusle kopurua, ordea, ez zen gisa horretako ekitaldi batean espero zitekeen bezain ugaria, guk aretoa bete egingo zela uste bagenuen ere, ez zen hala gertatu, baina Barçako bi jokalaria ohiak gure penyan eta gure hirian egindako egonaldiaren oroipen goxoa gorde zuten; hartara itxita geratu zen Piterman Alavesko presidente ohiarekiko afera.

Zorionez, iraganeko kontuak dira horiek eta Gasteizko gizarte osoa Piterman ahazteko bidean dago; ea aurki berriz ere Barçaz Mendizorrotzan gozateko aukera dugun.

Batzorde Berria

Irailean zuzendaritza batzorde berria eratuko da, beraz, bai bertan lan egiteko prestutasuna agertu dutenek eta bai oraindik ere parte hartzea hausnartzen ari direnek, atariko bilera bat egingo dugu irailean, apurka-apurka Batzorde barri hau itxuratu ahal izateko. ZURE ZAIN GAUDE.

P.B. Granollers Penyaren XXX. Urteurrena

Uztailaren 14 eta 15ean gure penyaren ordezkari batzuk Granollersko gure adiskideen urteurreneko ospakizunetan izan ziren. Merezi izan zuen, bai, eurekin izatea, azken urteotan gure hirira egin dituzten bisita ugariengatik esker ona adierazteko.

FCBko Penyen 7ko Futbol Txapelketa Abuztuaren 27tik 29ra - Bartzelona

Aurten partaide izango gara F.C.Barcelonako penyen Kimu mailako txapelketan; berau Gamper torneoaren aurreko egunetan egingo da, Bartzelonan.

Aranbizkarra K.T. taldeak txapelketa honetan esku hartzeko egin diogun gonbita onartu du; hartara, Euskadiri dagokion tokia bete eta geure ordezkari izango dira txapelketan, non eta Bartzelonan jokatuko baita.

Zorte on-ona opa diegu txapelketarako; agian mutikoren bat Masian geratuko da eta arratsalde ahaztezinak emango dizkigu Camp Nou zelaian.

XV. urteurreneko aldizkaria

Argitalpen honen azken maketazio eta edizio arazoak konpondu ondoren, bukatuta daukagu jadanik.

Aurreko batean adierazi genuen legez, beste agerkari arrunt batzuetan ez bezala, berrikuntzak sartu eta batez ere teknologia berriak baliatu nahi ditugu; hori dela eta, aldizkariak formatu elektronikoa izango du, PDF formatua hain zuzen ere, berau baita sistema hedatuena mota honetako agerietan, izan ere, horrela kostuak ikaragarri jaisten dira eta batez ere argitalpenaren espazioa erabat murrizten delako.

Informazio aldizkari honekin batera doakizuen CD-txartelean aipatutako aldizkaria aurkituko duzue. 62 orri dira orotara, koloretan eta publizitaterik gabe, bertan ageri diren iragarkiak azken urteotan gurekin izan duten lankidetzagatik sartu dira eta.

Agerkari honetan gure penyaren 15 urte hauetako ibilbidea sartu dugu, azken ospakizun urte hau barne, Trobadaren eta XV. Urteurreneko ospakizunen argazki eta guzti, eta abar. Urtemuga dela eta guregan abildu nahi izan dutenen agurrak ere jaso dira, hala nola F. C. Barcelonaren presidente, Vitoria-Gasteizko alkate, Iker Romero, Martin Fiz eta beste hainbatena.

Amaiera bikaina ekitaldi sorta honetarako, ospakizun zapore gozoa utziko diguna.

Oharra: gure web gunean ere esteka bat aurkituko duzue aldizkari hau jaitsi ahal izan dezazuen, baina ADSLrik ez baduzue, hobe izango duzue ez ahalegintzea, toki handia hartzen du eta...

Testuen azken bertsioa 2007ko otsailean idatzi zen.